

Zarautz loraldi berrian

Garbiñe Pedroso Conejero e Inhar Saenz de Santamaría

Ari Arkitektura

Laburpena

Herri dinamika askotan ageri dira parte hartze prozesuen harira eragindako ekimenak; haietan guztietan argi izpi bat eskaintzera dator hau.

Oinarria proiektu artistiko bat garatzeko Txopitea Beka da. Parte hartze prozesuak herritarrak sortzera animatu eta emaitzak herritarrengana zabaldu nahi ditu.

Herritar guztiei zergatik Zarautz eta zergatik horrelakoak garen horrelako Zarautzen azaldu zaie lehen fase batean. Planoen dimentsiotatik hirurako jauzia ere egin da; hitzaldi, tailer eta dinamikekin herritarrak sentsibilizatu eta haien ekarpenak jaso dira. Bigarren fasean nolako etorkizuna eraikiko dugun irudikatu dugu.

Orain arte darabiltzagun tresna arrazionalak dituzten gabeziak gaintutako dira dimentsio berrietara kolektiboki jauzi eginaz.

Proposamen honek arkitekturaren, arkitektoen sormen lanen, eta herritarren arteko lubakian zubiak eraikitzea ere du xede.

Inoiz baino beharrezkoagoa zaigu irudimena eta poesia, gure gogoia egunerokotasunaren estutasunak gaintzeko aukera eskainiko digun perspektiba berrietara bideratzea. Herritarren eguneroko jardueren espazioari begirada artistikoa, poetikoa, eskaintzearekin herritarrena den esparruan eraikitzaileki eragingo da.

Azken gauzapean aurrera so egiten du, etorkizuneko Zarautz eraikiz; eskalan lehenengo, ondoren Zarautz errealean eragiteko.

Emaitza formala hiri altzari gisako maketa da. Oinarria egurrezko lorontzi erraldoia da Zarautzen oinplantaren formaz. Ohiko zurgintza teknikak erabili dira, herrian galduak ditugun ontzioletakoak. Maketa landaretzaz bete da. Espazio berdina bete arren elkar lagundu eta elikatzen diren landare espezieen errealitatearen metafora gisan, herritarrak modu horretan jardutera animatuz; elkar elikatze bizi baikara Zarautzen. Maketaren azken gauzapena, aurrez landutako diseinuen arabera, haurrekin egin da; haiek etorkizuna aktiboki eraikiaraziz.

Gauztearekin ordea ez da amaituko proiektua; jendarte ezberdinetara bideratutako dinamika eta parte hartze tailer ezberdinak garatuz, *Nik ere Zarautz ureztatzen dut* kanpaina martxan jarri da.

Gako hitzak: historia, etorkizuna, beka, Zarautz, Sortaldea, loreontzia.

Abstract

Many towns are having popular initiatives related to “participatory processes”; this proposal wants to offer a ray of light in all of them.

The basis of this process is Txopitea scholarship which is looking for the development of an artistic project.

The process encouraged public participation in the creation and to share the results with the citizens. In the first step we explained to all citizens why Zarautz and how this Zarautz conditions us. From the drawings we changed to 3D; through conferences, workshops and dynamics we instructed the citizens and received their contributions. As a second step, we will imagine the future we will build.

We will overcome the rational tools we have used up to now, jumping collectively to new dimensions.

This proposal aims to build bridges between the architecture, as a creative work of the architects, and the citizens.

The imagination and the poetry are more necessary than ever, to guide our desires to overcome the problems of everyday.

Offering a look, artistic, poetic, at the public space where daily activities are developed, we act in a constructive manner into the public space.

The final execution is looking forward to build the future Zarautz: first in scale, so we will get later to the real Zarautz.

The formal result is a model such as city furniture. The base is a giant wooden pot, with the shape of Zarautz ground. Traditional carpentry techniques from shipyards that we missed in the town have been used. Model is filled with plants: flowers, grass, etc. As a metaphor of how the various species of plants, occupy the same place, helping and feeding each other, encouraging citizens to act in this way; because we live in Zarautz feeding among all.

The final implementation of the model, according to previous designs, has been implemented with children; encouraging them to build actively the future. However, the implementation is not the end of the project; developing various dynamics and participation workshops will aim at diverse people, which is the goal of *I'm also watering Zarautz* campaign.

Keywords: history, future, grant, Zarautz, Sortaldea, flowerpot.

*Herri dinamika askotan ageri dira parte hartze prozesuen harira eragindako ekimenak; haie-
tan guztietan argi izpi bat eskaintzera dator hau.*

*Zarautzen garapenean eragiteko, orain arte izan duen garapena ezagututa hau etorkizunerantz
islatuko da.*

*Oinarria proiektu artistiko bat garatzeko Txopitea Beka da. Parte hartze prozesuak proiektuan
sortutakoa eta herritarrak lotuko ditu norabide bietan: herritarrak sortzera animatuz, emaitzak herrita-
rrengana zabalduz.*

*Herritar guztiei zergatik Zarautz eta zergatik horrelakoak garen horrelako Zarautzen azaldu zaie
lehen fase batean. Bertan, bi dimentsiotatik hirurako jauzia ere egin da; eta hitzaldi, tailer eta dina-
mikekin herritarrak sentsibilizatu, formatu eta haien ekarpenak jaso dira. Bigarren fasean nolako etorki-
zuna eraikiko dugun irudikatuko dugu.*

*Orain arte erabili izan ditugun tresna arrazionalak dituzten gabeziak gaindituko dira beste
dimentsio berrietara kolektiboki jauzi eginaz.*

*Beste xede nagusi bat ere badu proposamen honek: arkitekturaren, arkitektoen sormen lanen,
eta herritarren arteko lubakian zubiak eraikitzea.*

*Inoiz baino beharrezkoagoa zaigu irudimena eta poesia, gure gogoia egunerokotasunaren
estutasunak gainditzeko aukera eskainiko digun perspektiba berrietara bideratzea.*

*Herritarren eguneroko jarduerak ospatzen diren herriari begirada artistikoa, poetikoa, eskain-
tzearekin; herritarrena den esparruan eraikitzaileki eragingo da.*

*Parte hartze prozesu honetan sortzaileak herritarren ekarpenak bideratzeko eta herritarrek
sortzaileen emaitzak jasotzeko medioak eskaini dira.*

*Ingurune hurbilarekin ditugun harremanetan eragiteko garrantzia du Zarautz bere sorreratik
nola kokatu den ulertzeak. Lehen lekutze horretaz gandi ingurune natural honetan bilbea nola garatu
den ulertzeak.*

*Garapen hau jasoa dago Zarautzko plano zaharretan. Haiekin lan bikoitz bat burutu da: planorik
esanguratsuenak herritar guztientzat erakusgai jarri eta plano bakoitzaren berrirakurketa burutu.*

*Gainera maketa bat eraiki da. Bertan, egungo Zarautz irudikatu da bi dimentsiotan, horren
gainean XX. mende hasierakoa altxa da.*

Emaitza plastiko baten abiapuntutzat egin du aurreko ikerketa eta azterketa lan

*horrek. Azken gauzapean ordea aurrera so egiten du, etorkizuneko Zarautz eraikiz; eskalan
lehenengo, ondoren Zarautz errealean eragin dezan.*

*Emaitza formala hiri altzari gisako maketa bat da. Oinarria egurrezko lorontzi erraldoia da,
Zarautzen oinplantaren formaz. Eraikitze ohiko zurgintza teknikak erabili dira, herrian
galduak ditugun antzinako ontzioletakoak. Maketa landaretzaz bete da. Inoiz baino beha-
rrezkoago den moduan hiriguneetan naturari bide egiteko aldarrari modura. Espazio berdina
bete arren elkar laguntzen duten eta elkar elikatzen diren landare espezieen errealitatearen
metafora gisan herritarrak ere modu horretan jardutera animatuko dira; elkar elikatze bizi
baikara Zarautzen. Maketaren azken gauzapean hau, aurrez landutako diseinuen arabera,
haurrekin egin da; haiek etorkizuna aktiboki eraikitzen jarriaz.*

*Gauzatzearrekin ordea ez da amaituko proiektua. Erakusketa zabalik egon den denbora tarte
aprobetxatu da jendarte ezberdinetara bideratutako dinamika eta parte hartze tailer ezber-
dinak garatuz. Oinarri artistiko honen aitzakian, Nik ere Zarautz ureztatzen dut kanpaina
martxan jarri da.*

Herritarren parte hartzea

Azken urteetan herri mailako dinamika askotan ageri da parte hartze prozesuaren bandera astintzen duen ekimen ugari; halako gaiak haizatzeko bultzada berria iritsi da, eta hitzetatik ekintzetara igarotzen ari gara hainbat erakunde eta eragileren apustu sendoa medio.

Prozedura hauetan guztietan hirigintzari lotutakoei eskainiko diegu begirada zehatzagoa. Udal zein aldundiko foroetan erabaki estrategiko ugari lurzoruaren planeamenduak erabakitzeko orduan ematen dira; eta hauek epe labur zein luzean herritarren egunerokotasuna baldintzatzen duten neurrian guztientzako oso garrantzitsuak direla deritzogu. Planeamendu hauetan hartutako erabakiek herritarrengan duten eraginaren neurri berean beharko luke herritarren parte hartzeak bere definizioan, baina horretarako zailtasun ugari aurkitzen da.

Zenbait ardatz aipatzearren:

- hirigintza eta lurralde antolamenduaren teknikarien eta herritarren artean dagoen jauzia. Batzuek zein besteak hizkuntza ezberdinak darabiltzatela esatera iritsi gitezke, informazio zein sentsazioen jarioa hautsia aurkituz. Gainera, batzuen zein besteen lehentasun eta helburuak dimentsio oso berezietan kokatzen dira.
- herritarra eztabaida eta erabakimen esparruetatik bereizia egon da hainbat urtez eta orain, bat bateko dinamika aldaketaren aurrean, aukerek eskainitako neurrian erantzuteko tresnak falta ditu. Beste aldean berriz, teknikari eta agintariek eragozpenak dituzte guztizko eta benetako parte hartze prozesuak abiarazi eta haietan herritarrek hartutako erabakiekin bat eginaz haien betekizunak kudeatzeko.
- halako aukerak ematen direnetan parte hartzaileen ardura eta erantzukizun komunitarioaren ordeztan norbanako interesen islak ageri dira sarritan, hainbatetan, talde dinamikatan parte hartzeko jokaera jatorra ere lantzeke. Erabakimen postuetan ere indibiduen figura sendoegia izan ohi da, haien disoluzioa desiragarria delarik asmo eta gogo baten bideratzaile soil gisan. Diskurtso eta praktika aldaketa sakon eta eraginkor bat abian behar da komunitatea helburu izanda.

Perspektiba berri bat

Zarautzen Hiria kolektiboak burututako Hiri Debekatuaren Mapa osatzeko parte hartze prozesuaren harira hasitako hausnarketa batetik abiatzen da ekimen berri hau. Bertan parte hartzaile izan ginen, esan gabe doa dinamika aberasgarria izan zela bertaratu ginenontzat. Baina iruditzen zaigu halako prozesuetatik jasotako fruituak uste bezain aberatsak izan daitezten eragozten duten puntu ezberdinak ageri direla herritarren desio, asmo, beldur eta sentsazioak plano batean jartzeko unean. Aipatu, parte hartze dinamika bera oso garatua izan zela, eta ondo landua, Kolektiboak duen esperientziaren adierazle; emaitzek ordea ez dute guztiek egindako esfortzuaren maila iristen, eta udal teknikariek emaitza horiekiko har-

tutako erantzukizuna ere bidean geratu ohi da. Norabide batean egindako esfortzuek norabide horretan emandako pausuen islaren feedbacka eskaintzen ez badute, zalantza izan ohi da aurrera egin ote dugun, horretan jarritako energiak benetan balio ote duen.

Honen baitan parte hartze prozesu esperimental bat abian jarri da Zarautzen. Hirigintza eta planeamenduetan eragiteko parte hartze prozesu eredu ezberdinak ezagututa, beste eredu ezberdin berri bat dinamizatu da. Helburua urrunago iristea izanik abiapuntua beste bat izango da. Herriaren garapenean benetan eragiteko Zarautzek orain arte izan duen hiri bilbearen, eta ondorioz bertako biztanleen, garapena ezagututa hau etorkizunerantz islatuko da.

Oinarria sormen proiektu artistiko bat garatzeko Txopitea Beka izan du, eta parte hartze prozesuak beka honetan sortutakoa eta herritarrak lotuko ditu norabide bietan: herritarrak sortzera animatuz, hein batean sortzaile bihurtuz, eta emaitzak herritarrengana zabalduz. Eskultura gizakia egiteko tresna gisan aldarrikatu zuen Jorge Oteizak; eskulturek bere lekua komunitatean dutenez komunitatea egiteko ere balio dutela aldarrikatuko da parte hartze prozesu berriak abian jartzeko eredu esperimental gisan garatutako honetan.

Herritarrei zergatik Zarautz eta zergatik horrelakoak garen horrelako Zarautzen azaldu zaie lehen fasean. Bertan, bi dimentsiotatik hirurako jauzia ere egin da; eta hitzaldi, tailer eta dinamikekin herritarrak sentsibilizatu, formatu, eta haien ekarpenak jasotzen dira. Bigarren fasean nolako etorkizuna eraikiko dugun irudikatu dugu. Ondoren emaitza irekia utziko da, irudikatutakoaren bidetik herriak bere pausuak eman ditzan. Orain arte darabiltzagun tresna arrazionalak dituzten gabeziak gaindituko dira beste dimentsio berrietara kolektiboki jauzi eginaz.

Proiektu artistikoa eta parte hartze prozesua bera garatzeaz gain beste xede nagusi bat ere badu proposamen honek: arkitekturaren edota arkitektoen sormen lanen eta herritarren artean dagoen lubakian zubiak eraikitzen hastea; hauek ikus-entzunezko, zein ukimenezko, artelan gisan ulertzeko.

Lubaki hau zubiz gainditzeko bekan bertan jaso dagoen proiektua garatzeaz gain herritarrenganako sentsibilizazio eta parte hartze kanpaina bat abiatu da paraleloki. Sormen prozesuak herria aberastu nahi du, eta baita horrekin herritarrak ere.

Sortzailea figura nartzisista urrun gisan ulertua izan da, eta hark ere gisa berean ulertu izan du bere burua inspirazio printzen bila herritik urrunduz. Parametro berezi hauetan murgilduko den proba pilotu esperimental gisan aurkeztu honako parte hartze prozesu eredu. Egun inoiz baino beharrezkoagoa zaigu irudimena eta poesia, beharrezko egunerokotasunaren estutasunak gainditzeko aukera eskainiko digun perspektiba berrietara bideratzea gure gogo eta, honekin, gure jarduna. Sortzailea horretan aritu izan da beti errealitate berriak irudikatzen. Eki-men honekin sortzaileak herritarren gogo sortzera bideratu du bere jarduna eta haien ezin egon eta ilusioei aterabide bat eskaini jarduera artistikoaren bidetik.

Arkitekturak, egunerokotasuneko jarduerarik soilenei ere eszenografia eskaintzeak, eta eraikuntzaren mundu makurrari, eta honek jasan berri duen mugako desorekari, hain estuki

lotuta egoteak urrundu du jarduera hau gainerako arte plastikoen eiteari. Baina Heideggerrek aspaldi aldarrikatu zuen gisan *Poéticamente habita el hombre*, eta horren baitan arkitekturak eskaintzen digu gure ingurune naturala ulertzeko eta haren baitan bizitzeko lekua eraikitzeko tresna.

Artea herritarrengana hurbiltzea xede duen egitasmo honen baitan, haien eguneroko jarduerak ospatzen diren herriari begirada artistikoa, hein handi batean poetikoa, eskaintzearekin; herritarrena den esparruan eraikitzaileki eragingo da.

Diskurtsiboki sarri entzundako terminoetatik abiatu gara, baina kontziente gara, bere horretan, sortzailearen eta herritarren arteko tartea handia dela, handia eta mugatua sormen emaitzek adierazi nahi dutenaren eta herritarrek haiengandik jasotzen dutenaren arteko aldea. Parte hartze prozesu honetan sortzaileak herritarren ekarpenak bideratzeko eta herritarrek sortzaileen emaitzak jasotzeko medioak eskainiko dira.

Arteak amesten dugun mundu berria irudikatzen duen indarra ezaguna da, eta irudikapen horretatik abiatuz eguneroko praktikan eragiteko potentzialtasuna du. Kemen hori egoki bideratzeko ordea herritarrengana iristea eta herritarrengandik elikatua izatea oinarrian aurkitzen dira.

Aurkezten den proiektu artistikoa bi fasetan garatu da, eta jarraipenerako bidea zabalik utziko da haren amaieran. Parte hartze prozesuak beraz norabide batean Sortaldean gertatuko denaren bozgorailu izan da herrirantz, eta beste norabidean, herritarrak proiektuarekin bat egitera eta sortzera gonbidatuko ditu modu interaktiboan garatutako prozesuaren baitan.

Zarautz berrirakurtzen

Ingurune hurbilarekin ditugun harremanetan, eta haiekiko gure portaeretan, eragiteko, bere biziko garrantzia du Zarautz bere sorreratik hondartza luze bateko padura ertzean nola kokatu den ulertzeak. Eta lehen lekutze horretaz gaindi ingurune natural paregabe honetan hiri bilbea nola garatu den ulertzeak, honi, haratago joko duen begirada bat eskainiaz.

Garapen hau jaso dago Zarauzko plano zaharretan, eta haiekin lan bikoitz bat burutu da.

Batetik, planorik esanguratsuenak herritar guztientzat erakusgai jarri dira. Modu honetara, alde batetik, gure herriaren forma ulertzeko, eta, beste aldetik, forma honek baldintzatu duen bizimodua ulertzeko. Plano hauen irakurketa eta ulermena errazteko haiek moldatu dira, irudi ediziorako tresnez eta datuz, formatu handian euskarri fisikoetan Sortaldean jartzeko.

Bestetik, plano bakoitzaren berrirakurtze bat burutu da. Planoa, bi dimentsiotan garatzen den irudi plastiko bat da, izatez, hiru dimentsioak bitan deskribatzeko tresna. Baina hainbatetan haratago joan daiteke, eta irudikatzen moduak ere eragiten du deskribatu nahi den lekuaren baitan irakurketa berriak eskainiz. Plano historiko bakoitza oinarri hartuta konposizio bana burutu da askotariko teknikak (marrazketa, pintura, collagea, argazkiak...) uztartuz. Garai

bakoitzari, eta haiek sortutako formei eta espazioen aberastasunei begirada kritiko bat eskaini zaie; egungo formak, forma fisiko zein bizitzeko modu gisan ulertuta, aberastu asmoz.

Herri bilbearen garapenean jauzi ezberdinak ikusi ahal izan ditugu. Hasiera batean herritarrek oso gertutik parte hartzen zuten berain herriaren eraikuntzan, herritarrek ziren haien beharrak modu komunitarioa asetzeko ingurune fisikoa eraikitzen zutenak. Herritar bakoitzak eraikitzen zuen bere etxea, elkarrekin eraikitzen zituzten bide, iturri eta antzerako azpiegiturak. Egun, guztia herritarrengandik urrun garatzen diren delako udal planeamenduetan oinarritzen da. Herritarra subjektu pasiboa da bere egunerokotasunean hainbeste eragiten duen erabaki esparru honetan.

Gero eta ugariagoak dira urruntasun honen baitan kokatzen diren hirigintza parte hartzaile tailerrak, hiri debekatuen mapak, ordenazio bat edo bestea aukeratzeko parte hartze prozesuak,... Hauek begi honez ikusten ditugu, noski, hirigintza parte hartzaile bateranzko bideak ugaritzen ari dira.

Proiektu honen bertuteetako bat prozesu hau guztia modu integral batean ulertu nahi duela da. Lehen fase honetan Zarauzko hiri bilbearen garapena modu ulerterraz batean herritar guztiengana zabaltzea da helburua.

Honekin batera Zarautzen maketa bat ere eraiki da irakurketa horretan laguntzeko. Egungo hiri bilbearen forman berebiziko eragina izan duen XX. mende hasierako Zarautzen maketa bat egin da.

Zarauzko hirigintzaren, eta herritarren bizitzaren, garai esanguratsutzat ulertzen da aristokraziaren jauregiez hornitutako hura. Herritar zaharrenek ezagutu dute jauregizko errealtate hura eta gazteagok pixkanaka ezagutu dugu bilbe honen desgaitzea eta ordezkatzea, sarritan amets modernoak itsututa. Berreskuratzeko ondare baino berrirakurtzeko ondare dela argi dugu. Elite baten gozamenerako ziren lekuak herritarrek oraindik berreskuratzeko ditugu (neguan hutsik ageri den hondartza ertzeko etxe, eraikin, azpiegitura eta espazio publikoak esaterako, gehienak ere pribatu), eta begirada berri batez XXI. menderako iraulketa bat hauspotuko da.

Maketan egungo Zarautz irudikatu da bi dimentsiotan, eta horren gainean XX. mende hasierako Zarautz eraiki da.

Lan hau guztia Sortaldean ikusgai egon da. Bertan herritarren ekarpenak jasotzeko espazio bat ere zabaldu da, haien ekarpenek ere prozesua aberasten baitute, herritarra eta sortzailearen arteko harremana proiektu honetako muintetako baten gisan ulertuaz. Zarautzen garapen historikoa, urbanistikoa zein plastikoa, herritarrei azalerazi zaie; etorkizuna poesiaz elikatzeko.

Gainera, jarduerok aberasteko hirigintza orokorrean eta zehazki Zarautzen garapen arkitektonikoaren inguruan mahai inguru bat eskaini da.

Zarautz berria

Emaizta plastiko baten abiapuntutzat egiten du aurreko ikerketa eta azterketa lan horrek. Proiektuaren azken gauzapean ordea aurrera so egiten du, bertan, etorkizuneko Zarautz eraiki da; eskala txikiago batean lehenengo, ondoren eskala errealeko Zarautzen eragin dezan.

Emaizta formala hiri altzari gisako maketa bat izan da. Maketa honek berezitasun hauek ditu:

- maketaren oinarria egurrezko lorontzi erraldoi bat da, Zarautzen oin-plantaren forman inspiratua. Lorontzia eraikitzeke ohiko zurgintza teknikak erabili dira, herrian galduak ditugun antzinako ontzioletan erabilitakoak. Bide batez, teknika hauek berreskuratzearen eta plazaratzearen inguruko jarduera ere burutu da Pasaiaiko Ondartzoko lagunekin.

Hondartza luzearen ertzean kokatutako Zarautzek bale arrantza zuen itsasoarekiko lotura nagusi. Arrantzarako ez zen inolaz ere portu natural egokia eta horregatik hautsi zuen itsasoarekin harremana bale arrantza amaitu zenean. Ondoren aristokraziak eta itsas bainuen goraldiak hondartza ertzeko orubeak bete zituen. Herriak itsasoarekin zuen lotura egun galduta dauden ontzigintza olek mantendu zuten.

Zarauzko lanbide edota ofizio zaharren inguruko jardunaldia burutu da, ontzigintza abiapuntu hartuta. Ondartxo elkarteko lagunek ontziola tradizionalen mundua ekarri dute Zarautza Sortaldean topagune bat eratuz. Jardunaldia aprobetxatuz lorategiaren egitura tailer eta erakustaldi gisan eraiki da erakusketa bizi gisan.

- maketa landaretzaz eraiki da lorontzi honen barrenean. Inoiz baino beharrezkoago den moduan hiriguneetan naturari bide egiteko aldarri modura gisan; gure bizitzak urrundu ditugu naturatik, eta inoiz baino gehiago harengana hurbiltzeko ageri den beharra erantzun nahi da. Bizitzeko prozesu naturalei begirada bat eskaintzearen beharra aldarrikatu da; baliabide eta hondakinen kudeaketan, izaki ezberdinen arteko harremanetan, ingurunea okupatzeko moduan, begirunean, xalotasunean, sinbiosian, entropian... bizi den herri bat eraikiko da.

Ingurune eraikia ingurune natural batean txertatzen da beti, Zarautzek ingurune paregabea inbaditu du bere herritarren bizitoki gisan. Hau postaleko irudi gisan harro ulertu arren ezin ulertu dugu garrantzia anitzeko ingurune produktibo gisan.

- Zarautzen irudikapen plastikoan landareen elkarbizitza bilatu da etxe-irla, orube eta inguruneak definitzerako orduan. Espazio berdina bete arren elkar laguntzen duten eta elkar elikatzen diren landare espezieen errealitatea ezaguna antzinatek; landa eremuan aspaldidanik erabilia egungo agroekologia berritzailean berriz ageri dena. Honen metafora gisan herritarrak ere modu horretan jardutera animatuko dira; gu guztiok elkar elikatzeko bizi baikara denok Zarautzen. Maketaren azken gauzapean hau, aurrez landutako diseinuen arabera egindako landaketarena, haurrekin egin da

proiektu hau garatuko dugunok abian dugun Hondarrezko Gazteluak ekimenarekin bat; haiek etorkizuneko Zarautz aktiboki eraikitzen jarriaz.

Horretarako herriko eskola ezberdinekin dinamika bat abiatu da, haiek proiektuan aipatutako gaien lanketa bat egitera bideratuz. Lanketa honen azken pausu gisan, herriko lau eskola nagusietako haurrak koordinatuz, guztien artean etorkizuneko Zarautzen oinarri metaforikoa eraikiko da.

Ikasturtearen hasierarekin egingo da hau. Maketa udako denboraldi osoan Sortaldeako atarian, Zarauzko malekoian, egon da kokatua. Ondoren udaren amaiera eta kurtso berriaren hasierarekin batera maketa lekualdatuko da herriko berdegune publiko batetara. Lekualdatze eta maketaren birkokatze horretan berriro ere haurren, eta baita herritarren, parte hartzea eragingo da.

Bekaren harira sortutako abagunea aprobetxatuz herriko sortzaile plastiko ezberdinen, esperientzia eta itzaldunei bezala ekintzaile gazteei ere, antzerako ariketa proposatu zaie: herritarrek parte aktibo nagusi izango dituen etorkizuneko Zarautzen irudikapena egitea. Lan hauek bideratzeko baliabideak eskainiko zaizkie guztiei eta ondoren lanak abiapuntutzat hasita sortzaileetatik herritarrenganako norabidea landuko da artea sozializatu eta bere eragina orokortzeko.

Metafora baten abiapuntua finkatu da proiektu honetan. Metafora hori gauzatzea herri osoari dagokio. Behin metafora hori gauzatuta hark adierazi nahi duena herrian gauzatuko da.

Planifikazio tresnek eta haietara herritarren parte hartzea bideratzeko prozedurek eskaintzen diguten perspektiba arrazionala da. Herritarrek benetan hunkituko dituzten prozedurak abian jartzea dagokigu benetan eraginkorrak izan nahi badugu. Horretan arteak bere lekua du tresna eraikitzaile gisan.

Pentsatu eta sentitu egin behar ditugu gure etorkizunerako amets irudi kolektiboak. Haiek eguneroko praktikan eragiteko gaitasuna dute, eta ondoren eguneroko jarduera itxuraz hutsal haiekin guztiekin errealitate berri bat eraikiko da.

Etorkizunean izan daitekeenaz orain dugun ustearen eta etorkizunean benetan izango denaren arteko distantzia jauzi ikusezin txiki bat besterik ez da. Zientziak eta arteak bat egin dute horretan. Orainean zabaltzen zaigun aukera anitzeko mundutik baliagarri eta aberasgarri zaizkigun bideak eraikitzea dagokigu. Artea hiritarra hunkitzen duen tresna gisan kaleratuz gaurtik hasita etorkizun eder baten arabera hirian bizi gaitezen.

(Artículo recibido: 14-06-2013 ; aceptado: 12-07-2013)